



Lan merkatuaren erreforma 3/2012 ELDaren barruan dago, eta berarekin dakar atzera egite larria, langileen oinarrizko eskubideak murrizten ditu, eta enpresari eta langileen arteko harremanak desorekatzen ditu. Testu honekin, enpresariari ahalmen handiagoak ematen zaizkio langilearen txarrerako, eta azken hau ziurgabetasun eta babesgabetasun handiagoan geratzen da. Proposamen honek are gehiago urruntzen du lan merkatuaren arautzea, flexisegurtasun eredu arrakastatsuetatik.

Lanpostuen prekarizatzek ez du lehiakortasun handiagoa eragingo, erreforma gaizki enfokatu da dago. Lehiakortasuna ez da lan baldintzak murriztearekin, soldata eta langileen kaleratzea merkatzeareki lortzen; lehiakortasuna eredu produktiboaren aldaketatik sortarazi behar da, pertsonen prestakuntza eta birziklapenaren aldeko behin betiko apustutik, oreka eta balio erantsi handiagoa eta I+G+B kontzeptuan inbertsio handiagoa egitea ekarriko duen aldaketatik.

Erreforma honek oztopatu egiten ditu Euskadin arautzeko ditugun gaitasunak eta gure erabaki esparrua. Negoziaketa kolektiborako eredu zentralizatuak sustatzen du, autonomiako lan harremanetarako esparruari eraso eginez eta euskal errealitate sindikalaren berezitasunak eta autonomi eremuko lanbide arteko hitzarmen eta akordioak kontuan hartu gabe.

Era berean, eraso egiten zaie Euskadik enplegurako politika eraginkorren inguruan dituen eskumenei. Lege Dekretuak enplegu eta Lanbide Heziketa arloan baliogabetu ziren arau asko berpizten ditu, eta orain, derrigorrez bete beharrekotzat aurkezten zaizkigu. Era honetan, *de facto* hutsik geratzen da enplegurako politika aktiboen transferentziak zuen eduki garrantzitsua.

Halaber, ELDak ere euskal autogobernuari eragiten dio zergen inguruko euskal autonomia errespetatzen ez delako, lan politikaren partetzat jo ezin diren pizgarriak ezartzen dira, Foru Aldundien eskumeneko zerga politikako tresna diren neurrian ikusi beharrean.

Arestian azaldutakoagatik guztiagatik, EAJ-PNVren Udala Taldeak Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onartzeko aurkezten du honako

MOZIOA

1. Oñati-ko Udalak 3/2012 Erret Lege Dekretu barruan dagoen lan reformaren kontrako gaitzespena adierazten du, lehiakortasuna irabazteko helburua duela ezartzen duen arren, lan merkatuaren arautzea modifikatzen duelako eta lan baldintzak eta soldatak baliogabetu eta narriatzen dituelako.
2. Oñatiko-ko Udalak lan harremanetarako marko autonomoa exijitzen du, Euskadin adostutako eta onartutako kontzertazioa, elkarrizketa soziala eta lan araudi propioa egiteko aukera ahalbidetuko duena.
3. Oñati-ko Udalak enplegurako politika eraginkorren eskumena osorik transferitzea exijitzen du eta zerga eta tributu politikak ez eragozte; honek ahalbidetuko du Euskaditik bertatik enplegua sustatzeko behar diren neurriak garatzea, gure berezitasunak kontuan izanik.